


Ekitaldi
ugari

daude egunotan ▶ 5



RAMON OLASAGASTI ▶ KAZETARIA

«Heriotza baino bizitza aurkitu zuten mendian, eta hori islatu dut»

BERROBI ▶ 'Mendiminez' liburua aurkeztu du; 22 mendizaleren biografiak bildu ditu bertan

MAMIA ▶ Lagunen eta senideen lekukotzak hartu ditu oinarritu; «nik jostun lana egin dut» ▶ 6

TOLOSA ▶

Koskadun zebra-bidea jarri dute San Frantzisko ibiltokian

Helburua autoek ibiltokia polikiago igarotzea da; dena den, ken daiteke ekitaldiak bertan direnean ▶ 7




Langileak lanean. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Santa Maria kaperakoak, Tafallan

Jende ugari bildu zen Gorritiri eginiko omenaldian ▶ 7

I. GARCIA



ANJEL YAÑEZ ▶ PP-REN HAUTAGAIA

«Udal-ordenantzak ez dira behar bezala betetzen»

Barau egin du kanpainaren aurretik «askatasun falta» salatzeke ▶ 4

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Urteko harpidetza kanpainari ekingo dio aurki HITZAK ▶ 5



egin behar dugu



M^a Angeles Lazkano
Zuzurkilgo Alkatetzarako
hautagaia

Bakartxo Telleria
Villabonako Alkatetzarako
hautagaia


Fidel Azpiroz
Anoetako Alkatetzarako
hautagaia

Txelo Romero
Ibarrako Alkatetzarako
hautagaia

Patxi Ulanga
Ikaztegiako Alkatetzarako
hautagaia

Pili Zubiarrain
Altzoko Alkatetzarako
hautagaia

Jokin Bildarratz
Tolosako Alkatetzarako
hautagaia





GAURKO IRUDIAK ▶



HITZA - I. GARCIA - A. IMAZ

EKITALDIAK ▶

ELDUAIN

Gaur, 15:00. Ezker abertzaleak deituriko herri batzarra. Herriar guztiak daude gonbidatuta.

TOLOSA

Gaur, egun osoan. Ezker abertzalea Tolosako kaleetan eta auzoetan ibiliko da.
Gaur, goizean. EAren hautagaiak Triangulon eta Berazubin goizean zehar informazioa banatzen ariko dira.
Gaur, 11:00etan. EAJko Markel Olanok, Maribel Olanok eta Tolosako zerrendaburuak ekitaldia eskainiko dute, udalberko Areto Nagusian.

VILLABONA

Gaur, 12:30ean. EA Eren mitina eta lancha izango da plazan.

ESANA ▶**PATXI ZABALETA**
NAFARROA BAI

«Lurraldetasuna gai konplexua da eta zuhurtasunez jorratu beharrekoa; ez du inork Nafarroa Bai-k bezala egin»

DATUA ▶**EA-EAJ**

Alderdiak Tolosaldean. EA eta EAJ alderdiak batera aurkezten dira Asteasun solik, ez beste inon. EA, 6 herritan bakarrik aurkezten da: Tolosan, Ibarrran, Leitzan, Zizurkilen (Tolosako jendea tartean), Berastegin eta Bidegoianen. Alegian, berriz, ez; alkatetza urtetan izan duela gogoratu behar da. EAJ 7 herritan bakarrik aurkezten da: Tolosan, Ibarrran, Villabonan, Zizurkilen, Anoetan (Tolosako jendea tartean), Altzon eta Ikaiztegiatan. Aurrekoetan ELDuainen alkatetza izan du (EArekin) eta Hernialden, Iruran eta Lizartzan ere aurkeztu zen, baina gero Lizartzan bakarrik heldu zion alkatetzari, besteetan errenuntziatuz. Bestalde, Orendainen eta Belauntzan lehen EAJ-EA aurkeztu zen, eta orain jende beretsua independente bezala aurkezten da.

Bozkatzeko aste baten faltan, aurkezpen eta ekitaldi ugari

Erredakzioa ▶ Altzon Batzarremuño plataforma aurkeztu zuten. «Herri atsegin, ireki, parte-hartzaile, eroso, bizi, euskaltzale, abertzale eta solidario baten aldeko urratsak» eman nahi dituzte, eta zerrendako lehen hiruak hauek dira: Iñaki Murua, Irantzu Arratibel eta Juan Mari Zubeldia. Tolosan, Zerkausian ospatzen ari zen Internet Egunean Markel Olano Gipuzkoako EAJren Batzar Orokoretako hautagaiarekin izan ziren Tolosaldeko hainbat alkategai.

Bestalde, Anoetako EAJk bere programa aurkeztu zuen zerrendarekin batera (beheran, ezkerrean). Fidel Azpiroz, Jose Inazio Otermin eta Mari Karmen Egurza dira lehen hiruak: «Etap berri baten aurrean, ilusioz, eta landu ditugun hainbat gauza heltzeko» daukela azpimarratu zuten. Ibarrrako EAE kalera irten zen herenegun «prozesuaren eta hauteskunde demokratikoen alde putxerazorik ez!» mezua zabaltzeko.

maiatzak
19
larunbata
17:00

TOLOSA
Erreka Mari
Trotxongilo taldea

PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com

Maiatzak 21 • Astelehena
16:30

Larralde - Elkorro
Apezetxea - Zubieta
" " " "

TITIN III - NALDA III
CAPELLAN - PASCUAL
" " " "

Beloki II - Galarza VI
Tolosako Beotibar pilotalekuan



BI HITZETAN ▶ KARLOS AGIRRE (LEITZAKO AURRERA ELKARTEKO LEHENDAKARIA)

«300 etxebizitzaren plana ongi aztertu behar du Udalak, oso gai serioa da»

Naiara Garzia ▶ Aurrerak urte asko daramatza Leitzan arlo askotan lanean eta urtean zehar herrian izaten diren ekitaldi ugari antolatzen ditu. Karlos Agirre (Leitza, 1948) Aurrera elkartearen lehendakaria da. **Zer-nolako balorazioa egiten duzu Leitzako Udalaren azken lau urteotako agintealdiaz?**

Lau urte hauek oso tristeak izan dira. Udala ikaragarriko krispazioarekin osatu zen. Zerrenda bat aurkezten ez zuten utzi eta hor hasi zen tentsioa. Gero ikurriaren gaia ere izan genuen eta dena tentsioa izan zen... Nire ustez lau urte hauek ahal bezala pasatu dira eta tentsioz betetako urteak izan dira.

Oror har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalari?

Hurrengo Udalak badauka gai bat oso serioa: 300 etxebizitza egiteko asmoa dago beheko eta goiko landan. Ez dakit Udala hau kontu hau aurrera eramateko asmoarekin dabilen edo, astelehenerako bilera baterako deialdia egin du. Hemendik 7 egunetara hauteskundeak

datoz, eta utzi diezaiotela hurrengoari. 300 etxebizitzaren plana ongi aztertu behar du Udalak, oso gai serioa da eta hori eskatuko nioke bereziki. Ez dakit hainbeste etxebizitza egitea beharrezkoa den, hori ongi aztertu behar da, nola bizi nahi dugun, herria erabat aldatuko baita 300 etxebizitza egiten badira.

Zure esparrutik, zer nabarmentendu nahiko zenioke Udalari?

Udalarekin harremanak normalak dira. Diru laguntza bat ematen digu guk kirol eta kul-

tur mailan antolatzen ditugun ekitaldietarako, baina herri mailan gauza gehiago antolatu beharko litzuke. Urte guztian zehar ez dago deuseren mugimendurik. Kultur Etxe bat ere lortu beharko litzateke. Leitzan badaude oso gauza interesgarriak mugitu beharrak. Leitzan egiten diren gauza gehienak Aurrerak eramaten ditu eta Udalan sartzen diren hurrengoak beste modu batetara antolatu beharko lukete, gurekin edo bakarrik, baina herri mailan beste ekimen batzuk behar dira.

IRITZIA ▶ INAZIO AGIRRE ARREGI (TOLOSAKO EZKER ABERTZALEAN)

Damua garaiz!



Espainia eta Frantzia mendeetan zehar Euskal Herria ukatzen, zatitzen eta asimilatzen ari dira. Orain, hauteskunde ez demokratikoak ditugu. Duela 70 urte, EAE-ANV lege kanpoko zen eta gaur, bere hauteszerrendak ere bai, %80 batean. ASB, ezker abertzalearen aukera, guztiz debekatu dute, nahiz eta alderdien legea bete. Milaka euskal herritar eskubide politikorik gabe, adierazpen askatasuna eta sufragiorako eskubiderik gabe gelditu dira. Honela, 1978an Espainiak inposatutako esparru konstituzionalaren, ejerzitoaren, guardia zibilarren eta epaitegien zaindaritzapean bizi gara. Zenbaitek, alderdien legearen aurka daudela esan arren, ez dute ezer eraginkorrik egiten onurak ateratzeko. Eta hori gutxi balitz, Batasuna hauteskundeetatik kanpo egotearen erantzukizuna ezker abertzalearena dela diote arduragabetasunez.

Demokrazian herritarrek askatasunez eratu behar dituzte euren alderdiak. Nahi dituzten helburu, egitura eta zerrendekin. Baina, egoera ez demokratiko honetan, estatu espainiarrek baldintzak ezartzen ditu ezker abertzalearen helburuak, egiturak eta zerrendak aldarazteko derrigortzeko. Ezker abertzalea berez dena izan ez dadin, PPK eta PSOEek nahi dutena baizik. Eta hori tranpa da, ez du ezer konpontzen, guztion sufrimendua luzatzen baizik. Hauteskunde ez demokratiko hauek ez dute zilegitasunik, Batasunari debekatzeko diotelako hauteskundeetan egotea berdintasunezko baldintzatan, herritarren borondatea errespetatzen ez dutelako eta sortuko diren erakundeek herritarren borondatea ordezkatuko ez dutelako. Egoera hau onartzeak faxismoaren maldan behean irristatzeko arriskua du.

ETAren su-etenak ireki zuen aukera ongi baliatzeko, ezker abertzaleak

urratsak eman ditu prozesu demokratiko baten alde: Anoetako proposamen metodologikoa aurkeztu, Anaitasuna proposamen politikoa luzatu eta ASB marka berria alderdi politikoen erregistroan sartu. Baina su-etenaren arren, prozesua ez da abiarazi, ez Barajasko atentatuaren aurretik, ez ondoren ere. Gure aldetik aditza eman nahi dugu jarraituko dugula konponbide demokratikoa eta erabakitze eskubidea bermatuko duen bake prozesuaren aldeko apustuan.

Estatu espainiarrek erakutsi digu «indarkeriarik gabe dena posible da» errepikatutako leloa gezurrezkoa dela. Francoren altxamendua eta Irakeko inbasioa, GAL eta torturak, PPK eta PSOEek euren indarkeriak gaitzesten ez dituzten bitartean nahiago dute ETAren indarkeria gaitzesteko adierazpena, indarkeria guztiak gainditzea baino. Ez da horrela egin Irlandan eta konponbide demokratikoa aurrera doa. Inbidia ematen digu. Prozesu hori ezinezkoa izango zatekeen, ordea, aurretiaz irlandarrei autodeterminazio eskubidea aitortu gabe, bertako presoak aske utzi gabe eta Sinn Fein lege kanporatu izan balute.

Baina hemen, alderantziz gertatzen da: ez dute Euskal Herriaren erabakitze eskubidea errespetatzen, presoei bizi bitarteko zigorra ezartzen diete eta Batasuna lege kanpo jartzen dute, hau da, hauteskunde eta erakundeetatik kanpo. PSOEren helburua da aldaketa politikoa eragiteko tresnarik gabe uztea ezker abertzalea. Eta hau konponbidea baino, gatazkabidea da. Gu Sinn Fein-ek egin duen gauza bera egiten ari gara, baina Rodriguez Zapaterok ez du egin Tony Blair-ek egin duena.

BAKE PROZESUA

«Gu Sinn Fein-ek egin duen gauza bera egiten ari gara, baina Rodriguez Zapaterok ez du egin Tony Blair-ek egin duena»

Zapateroren helburua ezker abertzalearen proiektua suntsitzea da. Euskal Herriaren independentzia, sozialismoa eta euskalduntasuna saihestea. Baina ez da hori orain eskatzen duguna. Orain, «Laurak bat (Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, zazpi izateko bidean) eta erabakitze eskubidea» eskatzen dugu, proiektu politikoa, sozial eta linguistikoa guztiak demokratikoki aukera berdintasuna izan dezaten, independentzia barne.

Gutxieneko proposamen politikoa hori demokratikoa da, erabakitze eskubidea herritarrek dutelako; pragmatikoa, gusandik urrun dauden ahots askok eman dutelako; egingarria, publikoki hala aitortu delako; eta gatazka gainditzeko balio du, proiektu politikoa guztiak baldintzatzen duen burutzea ahalbidetzen duelako.

Hor dago marra gorria. Beherago jozteko ezinezkoa da, proiektu politikoen arteko aukera berdintasuna hausten delako. Hala ere, PSOEek ezeko eman dio akordio politikoa. Eta horrela, konponbide demokratikoaren prozesuak aurrera egitea oso zaila da. Egoera hau, ordea, ez zen gertatuko EAJK, azken urte honetan, PSOEri eman dion laguntza guztia izan gabe.

Urtetan eskatutakoa egin duenean, ezker abertzalearen eskaintza politikoa ezezkoa eman diote. PSOEek eta EAJK erantzun positiborik ez emateak arazoaren aldean daudela erakusten du: ezezko frontean; eta alternatibarik ez aurkezteak, konponbidea luzatzearen eta prozesua usteltzearen alde

daudela. Une historiko honen aukera galtzen uzteko prest daude. Solaskide politikoen arteko berdintasun prozesua eta negoziazio politikoa baztertu dituzte. Eta prozesua ezin du ezker abertzaleak bakarrik konpondu. Konponbide demokratikorako derrigorrezkoa da gatazkan sartuta dauden eragile guztien (edo nagusien) esku hartzea eta gatazkaren muinari heltea; gatazka elikatzen dituzten gakoak ezeztatze (autodeterminazioa, lurraldetasuna, hizkuntz gatazka, ...) eta justizian oinarritutako bakea eraikitze.

PPk gerra nahi du, Espainia Bakarra eta kito. PSOEek ez du bakerik nahi, eskubideak zantpatzen darrai. Eta EAJ bi horiek akordio bila dabil, ezker abertzalearen gatazka politikoa gainditzeko eskaintzari uko egiten dion bitartean. EAJK ez du proposamen hori onartu, Nafarroarekin bat eginez gero, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan duen hegemonia politikoa galtzeko beldurrez dagoelako eta honetaz gain, negozioren truke, gatazka jarraitzeko prest dagoelako. Berritoki ere, aukera dagoen Espainiaren alde jo du.

EAJK PPrekin eta PSOEekin egin nahi duen «itun antiterroristak» errespiesioa eta gatazka luzatzea besterik ez du ekarriko. Ez dezagun alferrik galtzen utzi konponbiderako aukera hau. Jarrera alderdikoak eta interes partikularrak bigarren maila batean utzita, Euskal Herriaren interes orokorrak mahai gainean jarrita, orain eta hemen, bake prozesu demokratikoa posible da.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuta daudenek deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 69 19 33.

GALDUTAKOAK

Bizikleta. Tolosaldeko Udaltzaingoa plaza berriko Iratxo tabernaren aurrean topatutako mendiko bizikleta jasota dago Udaltzaingoa eragozita. Norbaitek galduta badu, Udaltzaingoa eragozita pasatu dadila argibide gehiago jasotzeko.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Udal Hauteskundeak. Datorren hilaren 27an izango dira udal hauteskundeak Tolosaldean eta Leitzaldean. Webgunean herri guztietan aurkeztu diren zerrenda guztiak kontsultatu dezakezu. Orotara bi eskualdeetan 115 zerrenda aurkeztu dira.



ANGEL YAÑEZ ▶ PP-REN HAUTAGAIA TOLOSako ALKATETZARAKO

«Udal-ordenantzak ez dira betetzen behar bezalako zorrotasunez»

Laugarren aldia izango da aurten Angel Yañez PPTik udal hauteskundeetan aurkezten dela; kanpainaren aurretik barau egin du «askatasun falta» salatzeko

IMANOL GARCIA

Angel Yañez (Lugo, Galizia, 1934) laugarren aldiz aurkezten da PP alderditik Tolosako alkatezara. Irailean beteko ditu 50 urte Tolosan bizi dela eta egun zinegotzia da Tolosako Udalean.

Zein da orain bukatuko den legegeldiaren balantzea?

Tolosan, modu orokor batean, balantzea positiboa izan da. Azkeneko osoko bilkuran hasierako onarpena izan du Tolosaren etorkizunerako garrantzi handia izango duen Hiri Urbanizaziorako Plan Orokor berriak. Anbizio handikoa da, guk parte hartu dugu eta nahiko gustura gaude. Gauza gehiago ere badaude. Kirolegia inauguratu da eta guk horretan ere lagundu dugu. Leidor aretoa berrinauguratu da. **Zer aportazio egin ditu PPK onartu berri den Plan Orokorrean?**

PPK zenbait proposamen egin ditu Planean sartu direnak. Legealdi honetan Udaleko gobernuak protagonismoa izan badu ere, nolabait esateko nahiko eskuzabalak izan dira protagonismo guztia ez izateko. Ez da guk aportatu duguna esateko unea, baina Plan Orokorrean agertzen diren gauza askorekin bat egiten dugu, bai etxebizitzaren aldetik, bai garraioaren aldetik, bai industria garapenean. Gure proposamenak egiten ditugu eta Planean sartu dira modu orokor batean.

Zer proposamen egiten dituzue legegeldi berrirako?

Udalaren bizitza baldintzatzen adinako emaitza lortuko bagenu, agian behar bezalako arreta ematen ez zaion gauza



I. GARCIA

ETXEBIZITZAK

«Modu kooperatibo batean eraikitzea oso praktikoa da neurrigaineko prezioen aurka egiteko»

bat exijituko genuke: udal-ordenantzak betetzea. Udal-ordenantzak asko daude, asko ateratzen ditugu, baina gero ez dira betetzen behar bezalako zorrotasunez. Horrek guztiak luzarora begira herritarren bizitzan eragina du.

Eta etxebizitzaren gain?

Kooperatibo sisteman konfidantza dut. Etxebizitzak modu kooperatibo batean eraikitzea

EUSKARA

«Mantendu, bultzatu eta garatu behar da, baina ez gaztelaren edo ingeleraren lepotik»

oso praktikoa da etxebizitzaren neurrigaineko prezioen aurka egiteko. Orain onartu den Plan Orokorrean, etxebizitza tasatuen alorrean, lekua ematen zaio aukera honi. Gustatuko litzaike ere, Abastos plazan gazteentzako alokarirua sozialerako etxebizitzak eraikitzea. Denbora bada eskatzen dugula, Tolosan derrigorrez eraiki behar den lur-zoruaren erregistroa egitea. Kezka hauek guztiak komisiotan agertzen ditugu eta uste dugu hurrengo legealdian aurrera ateratzeko moduan izango garela. Bestalde, Voith-Gorostidiko etxebizitzaren inguruan Udal Gobernuaren gehingoarekin bat egin dugu. Lur-zoruaren lege berriaren gainetik, proiektuak prezio ezberdineko etxebizitzak jartzen ditu aukeran, herritarren artean ezberdintasunak daudelako ere. Horrela, prezio erregulatua duten etxebizitzak, hau da, babes ofizialekoak eta tasatuak, gehiago dira

prezio librekoak baino. Hein batean behintzat, zuzendu egin da eramaten ari ginen etxebizitzaren neurrigaineko prezioen ibilbidea.

Zer iritzi duzu AHTri buruz?

Nik erreflexio bat egiten dut. Aurrerapena ez da batzuetan ematen duen bezain onuragarria gizadiarentzako, baina garatu egin behar dugula eta beharrezkoa dela gure arteko harremanak erregulatzea onartu behar dugu. Saihestezina da trenak lehen baino azkarrago joan behar izatea. Beraz, beharrezko neurri guztiak hartu behar dira, baina AHT zerbait positiboa da guretzako.

Nola uste duzu ari dela Agenda 21a ezartzen Tolosan?

Oso pozik nago nola ari den ezartzen Tolosan Agenda 21a. Nik uste dut herritarrek parte hartu behar dutela ideia horretan eta Tolosako Udaltik nahiko esfortzu egiten ari da jendeak parte hartzeko.

Eta hondakinen kudeaketa?

Hor kritika bat du herritarren zatik. Jarrera hobetu bada ere, oraindik oso ohikoa da, eta honetan adibidez sartzen da udal-ordenantzak bete behar direla exijitzea, basura-poltsak eta kartoiak lekuz eta ordutegiz kanpo utzi direla ikusteak. Lehen baino gehiago birziklatzen dugu, baina oraindik he-

rritarrek gehiago egin beharko luke.

Hezkuntzaren gaiari buruz zer iritzi duzu?

Hezkuntzaren gaia hobetu daiteke EAEn. Saldu izan zaigu ideia bat, euskara jazartua izan zela aurreko garaietan, baina jende askok ez du uste hori. Beste gauza bat da ez zela babestua egon eta beste gauza bat da mementu jakin batzuetan batzuei euskaraz egitea debekatzen zitzaizela, arbuia garrria dena, baina orokorrean jazarpenaren ideia saldu da eta hori ez da ona izan. Nik uste dut gaztelera ezagutzea garrantzitsua dela, hemen, Espainian, hizkuntza komuna delako eta nire dudak ditut eskualde hezkuntza sistemaren bitartez hori lortzen ote den. Euskara, ondasun oso garrantzitsu bezala, mantendu, bultzatu eta garatu egin behar da, baina ez gaztelaren lepotik edo hainbeste milioiek hitz egiten duten ingeleraren lepotik.

Euskararen inguruko diru laguntzei buruz zer diozu?

Laguntzak beharrezkoak dira ez badira betikotzen. Hizkuntza ikasteko bai, baina komunikabideei dagokionez diru laguntzak gai irristakorra da. Diru laguntzek jendea patxadazale bihurtzen dute. Limiteak izan behar dira denboran eta kopuruan. Gure aldetik kritikoak izan gara HITZ Ari eta Galtzaundiri diru laguntzak emateaz.

Barau egiten izan zara hiru egunetan. Zergatik?

Agerian utzi nahi izan dut bizi dugun askatasun falta. Herri honetan askatasuna izango balitz, ez legoke horrelako gauza dramatikorik egin beharrik. Hau da, hiru egunez jan gabe egotea gure boto emaileren baten aldeko zerrindaburu izateko Tolosan. EAetik kanpo ez da ematen egoera hau, beti boluntarioak baitaude. Hemen beldur asko dago eta hori agerian utzi nahi nuen.

Zer deritoxo ezker abertzaleen zerrindaburu baliogabetzeari buruz?

Nik Espainian eskubitik gidatu behar dut eta Ingalaterran ezkerretik, legeek horrela esaten dutelako. Hauteskundeetara aurkezten direnek legeak bete behar dituzte.

Zer emaitza espero duzue hilaren 27an?

Lortu beharko genukeen gutxieneko emaitza 2-3 zinegotzi izan beharko luke. Jendeak bildurra dauka boto-txartela hartzeko ere. Gure boto-emaitza kopurua %25a izan badaiteke ere, zoritxarrez ez dira guztiak espresatzen. Gure helburua da konkordiarako elementua izateko gurekin kontaktu ahal izateko bizikidetzarako ekarpen positiboak egiteko.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

RAMON OLASAGASTI ▶ KAZETARIA

«Heriotza bainoago bizitza aurkitu zuten mendian, eta hori islatu dut»

Mendiari erabat emandako 22 lagunen biografiak bildu ditu Ramon Olasagastik 'Mendiminez' liburuan, senide eta lagunaren lekukotzetan oinarrituta

EKAITZ AGIRRE (Berria)

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika beka irabazitako proiektuak gorpuz hartu du. Ramon Olasagasti (Berrobi, 1972) kazetari eta mendizaleak idatzitako Mendiminez liburua atzo aurkeztu zuten Donostian. Azken urteotan mendian hil diren hainbat mendizalaren ibilbidea, biografia eta soslaia jaso ditu Olasagastik lan honetan. Mendiminez bizi izan zirelako, mendirako pasioz, mendia zutelako zaletasun, bizitzarako hauspo. Felix Iñurrategi, Jose Luis Zuloaga Zulu, Manu Badiola, Atxo Apellaniz, Miriam Garcia, Xabier Ormazabal, Antonio Miranda, Mikel Ruiz de Apodaka, Xabier Ansa, Leandro Arbeloa, Gerardo Plaza, Ernesto Fonquernie, Jose Luis Domeño Pepe Rayo, Pumorin zendutako bost gazteak, Antxon Alonso, Xabi Guembe, Ruben Aramendia eta David Larrion dira protagonistak. Horien guztien ibilbidea laburbiltzen ditu liburuan, mendizaleen lagun eta senideen kontakizun, bizipen eta gertuko lekukotzek duten berotasunarekin.

Zer aurkituko du irakurleak Mendiminez liburuan?

Mendiari erabat emandako 22 bizitza apasionatu. Liburuan 22 horiek daude, baina zeharka beste mendizale batzuk ere aipatzen dira. Mendian heriotza topatzeak batzen ditu guztiak, baina heriotza bainoago bizitza aurkitu zuten mendian. Hori islatu nahi izan dut. Pasioa haizea bezalakoa da, mugitzea beharrezkoa; batzuetan, ordea, haizea urakan bihurtzen da eta zoritxarrak ekartzen ditu. Baina guztiok behar dugu haize pixka bat bizitzan. Haiek mendian bilatu zuten zaletasun eta pasio hori.

Mendian heriotza topatu zuten arren, uneoro bizitza hitzari egiten diozu erreferentzia. Kontraesana dirudi, ezta?

Mendia eta heriotza eremu irristakorrak dira, sententzionalismoan eta morboan erraz eror zaitezke. Mendiko istripuak gertatzen direnean maiz ikusi izan dugu kazetariar partetik hori; nik ez diot heriotza-



I. TERRADILLOS

LIBURUA ▶

Izenburu. *Mendiminez*.
Argitaletxea. Elkar.
Egilea. Ramon Olasagasti.
Orrialdeak. 312.
Salneurria. 29,50 euro.

Nik jostun lana egin dut. Biografia lau eta plano bat beharrean, lagunaren eta senideen lekukotzen berotasuna dute biografiok.

Senide eta lagunak izan dituzu lehen eskuko iturri. Heriotza beti da gai gogorra, nolako harrera izan duzu?

Oso harrera ona. Jendeak esker ona azaldu dit haien lagun edo senidea gogoratzeagatik. Nik ere nahiago izan dut haiei lehenetsuna eman; oso diferentea baita kazetari batek mendizale bati buruz idaztea edo lagun batek beste lagun bati buruz idaztea. Adibide simple bat jartzearen, Juanjo San Sebastianek zilegitasun handiagoarekin hitz egin dezake Atxo Apellaniz buruz, nik baino. Ni kazetaria naiz, Juanjok, aldiz, lagun mina zuen Apellaniz. Distantzia hartu dut biografiak idazteko, eta senide eta lagunaren bitartez gerturatu dit mendizaleak.

Zenbat elkarrizketa egin dituzu?

Berrogeita hamar inguru bai, baina biografia bakoitza osatzeko ez dut iturri kopuru bera behar izan. Sokalagun finkoa izan zuten mendizale askok, eta kasu horietan ez dut beharrezkoa ikusi jende askorengana jotzea. Beste mendizale batzuk, aldiz, jende gehiagorekin ibili ziren mendian.

Mendia maite zuten guztiek, mendia zuten pasio. Zer du mendiak hainbeste mendizale erakartzeko?

Erantzun garbirik gabeko galdera da hori. Garbi dago zerbait indartsua dela, denek jakin baitzekiten bizia arriskuan zutela. Hori jakinda mendira

joateko eta plazera bilatzeko zer edo zer indartsua behar da, eta oso zaila da hori mendizalea ez denari ulertaraztea. Lionel Terrayk zioen «alpinistak alferrikakoaren konkistatzaileak direla», baina absurdo horretan zer edo zer indartsua dago; batzuentzat askatasuna izango da, plazera, lasaitasuna, sufrimendua... Liburuak idatzi ahala konturatu naiz etengabe ari nintzela justifikazio bila, eta zergatik justifikatzeko behar hori? Azken finean, pasioak ulertzen dira edo ez dira ulertzen. Badirudi heriotza aurkitu zutelako haien jarduerak zentzua zuela arrazoitu behar dugula. Batzuek zentzua aurkituko dute, beste batzuek ez. Zergatik mendizaletasun hori justifikatu beharra haiek hori sentitzen bazuten? Finean, baikoitzak bilatzen du pasioa, bidea, arnasa...

Mendizaleak aukeratzekoan zer irizpide erabili dituzu?

Oso zaila izan da aukeraketa egitea, eta nire beldurretako bat. Alde batetik, mendizale gisa ibilbide bat egin izana eta nolabaiteko arrastoa utzi izana. Kasu batzuetan, Antxon Alonso, adibidez, aitzindariak izatea... erreferentzialtasuna edukitzea, itzala eduki izana garai batean edo eskualde batean. Hainbatek faltan sumatuko dituzte beste izen batzuk. Nik ere gehiago sartuko nituzkeen, liburu mardulagoa idazteko aukera izan banu. Baina mendizale batzuen biografiak diren arren, espirituan mendizale guztien pasioa jasotzen du liburuak. Bildu ez ditudan mendizale askoren senideak liburu bakoitzaren askorekin identifikatuta sentituko dira. Denbora faltagatik kanpo geratu dira Luis Mari Pikabea Loro, Pedro Udaondo, Ricardo Valencia eta beste asko.

Mendiminez izenburuak biltzen al du liburuaren espiritua?

Beka eman zidaten garai bertsuan argitaratu ziren Bittoriaño Gandiagaren lau liburu: Jainkominen, Euskalminen, Izadiminez eta Biziminez. Biziminez liburuan poesia labur eta simple bat asko gustatu zitzaidan; bizitza ez dela irautea, zerbait gehiago dela ematen zuen aditza. Bizitzeko grina islatzen du, eta Mendiminez-ek mendiarekiko pasioa. Minaren zentzua ere badu hitzak, mina ere eragin baitzuten heriotzek.

OMENALDIA

«22 mendizalaren biografiak diren arren, espirituan mendizale guztien pasioa jasotzen du liburuak»

ren momentuari garrantzirik eman nahi izan, haien bizitzetan oinarritu naiz. Planteamendua oso simplea da: mendia deskubritu eta mendira zaletu ziren guztiak, eta mendiak eman zizkien bizitzako momenturik onenak. Horren inguruan idatzi dut.

Kazetari lanetan mendizale horietako asko ezagutu zenuen. Haiek ere arrastoa utzi al zuten zuregan?

Arrasto handia. Mendiko berriemalleok espedizioei buruz aritzen garenean gertuko bihurtzen zaizkigu mendizaleak, kazetari-kirolari harremanetik haratagoko gertutasuna da. Mendizale horietako asko-

LIBURUA

«Lagunei eta senideei eman diet hitza, eta mendizaleen idatziak berreskuratu ditut; nik jostun lana egin dut»

ren istripuen inguruan idatzi behar izan nuen lanean, baina haien ibilbidea orrialde batean edo artikulu motz batean laburbildu behar izaten nuen. Hori inpotentzia ariketa zen, biografia entziklopediko bat idaztera mugatzen bainintzen, eta ezin nuen mendi ibilbide horren atzean zegoen bizitzari eta pertsonari buruz idatzi. Biografiak landu ditut orain, baina lagun eta senideen hitzetan oinarrituta. Ni, egile gisa, hirugarren plano batean gertatu naiz, diluituta. Nire ekarpenak ere badaude, baina lagun eta senideei eman diet hitza, eta mendizaleen beraien idatziak berreskuratu ditut.

MUNIZABALaltzariak

- 500 m² bi solairutan
- Bertako okasiozko altzariak
- Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:
- Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tel.: 943 65 17 61

San Inazio 2

TOLOSA

KOMUNIKABIDEAK ▶

ERREDAKZIOA

Tolosa Herria Hedabideek 2007ko harpidetza kobraketa kanpaina hasi dute. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria argitaratzen dute (www.tolosaldeko-hitza.info ere badu), «eta ematen dugun zerbitzu komunikatiboa kontuan hartuta, irakurleek harre-ra ona egitea espero dugu», diote enpresatik. Hala, iaz bezalaxe, harpidetza-kuota ordaintzen duenari HITZA etxera eramango zaio. Era berean, kuota ordaindu ez baino egunkaria irakurri nahi duenari ere, dagokion auzoko leku publiko batean (liburu dendan, okindegian...) utziko diote egunero.

Aurtengo harpidetza kuota 52 eurokoa izango da, eta zenbaterako hori 2007ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunero etxean jasotzeagatik zerbitzuaren truke ordaindu beharrekoa izango da.

HITZA jasotzeagatik ordaintzen dutenek (batez beste egunero 18 zentimo), abantailak izango dituzte: etxean jasoko dute egunkaria, zozketetan parte hartuko dute eta hainbat beharrezko izango dituzte. Harpidedun txartela jasoko dute, zozketetarako eta deskontuetarako baliagarria dena.

Gutuna, «informatzeko»

HITZAREN harpidedunak edo irakurleak direnak dagoeneko hasi dira gutunak jasotzen, eta horietan kobraketa kanpainaren berri ematen zaie. Bezeroak bere harpidetza datuen aldatzea egin nahi izanez gero (ordaintzaile izatera pasatu, kontu korronte zenbakia eman edota atariko giltza utzi) deitu beharreko bezero-arreta zenbakia ere agertzen da gutunean bertan: 902 820201.

Milaka dira azken urteotan HITZA etxean jasotzeagatik harpidetza kuota ordaintzen dutenak. Iaz, esaterako, kontaktatutako %65ek ordaindu zuten. «Aurten ere behar-beharrez-

Urteko kobraketa kanpaina hasi dute dagoeneko Tolosa Herria Hedabideek

Harpidedunek hainbat abantaila izango dituzte aurrerantzean ere: HITZA etxean jasoko dute, eta zozketak eta deskontuak izango dituzte



HITZAren produktu guztietaz gozatzeko aukera izango dute harpidedunek. HITZA

Aurten, fideltasunari saria

Hasi berria den kobraketa kanpainaren harira, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO harpidedun izateagatik fidel-tasuna sarituko dute Tolosa Herria Hedabideek. Izan ere, aurretik harpidetza kuota ordaintzeko kontu korrontea

eman edo orain ematen dutenen artean, Tolosako Casa Julian jatetxean bi pertsonentzako bazkari edo afaria zozketatuko da. Era berean, aurretik beren atariko giltza eman edo orain ematen dutenen artean, Ortzadar azpiko arropa den-

dan 120 euroko erosketa zozketatuko dugu.

Hori guztia, irakurleen fidel-tasuna saritzeko, eta asteartetik igandera eskualdeko informazioa jasotzeko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA aukeratzeko erabiltzeko sarituko. ◀

koa da irakurleen diru ekarpena. Tolosa Herria Hedabideak, ahalegin handia ari da egiten, egunkariaren bidez eskualdeko informazioa etxeraino eramanez eta hizkuntzaren normalizaziora begira ekarpena eginez. Horrek kostu handia dakar» dio Jon Mujika kudeatzaileak.

Horrez gain, erakunde publikoen diru laguntza politika urrun dago oraindik ere proiektuaren benetako beharretatik.

Urte urte, «hobetzea xede»

Tolosa Herria Hedabideen helburua, egunkariaren eta zerbitzuen kalitatea hobetzen jarraitzea da. Azken urte hauetan, harpidedun txartelaren bidez eskualdeko hainbat saltokitan beharpenak lortu dira bezeroentzat. Harpidedunen Txokoaren bidez, hainbat sari ere banatu dira urteotan.

Bezero-arreta zenbakia ere badu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Bertan, irakurle eta harpidedunen kexak eta zalantzak argitzen saiatzen dira.

Gainera, www.tolosaldeko-hitza.info webgunean eguneko eta aurreko zenbakietako informazioa eskuragarri izateaz gain, azken orduko informazioa ere eguneratzen du HITZAK. Norberak ere sar dezake informazioa webgunean. Izan ere, HITZA proiektuak laugarren urtea betetzen duen honetan, «irakurleen eta webgunearen erabiltzaileen iritzia ezinbestekoak izango dira kalitatea bermatu eta aurrera egiteko».

ARAMBURU
Alokatzeko (Saloi), Apartamentua, 2 logela, 7 ohe, aire egokitu eta perleku. Hondartzara ondoan.
Alokatzeko (Tolosa), Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon itxia.
Alokatzeko, Pabiloi industrialia, Leaburuko bidean.
Salgai (Tolosa), Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa), Pisua Bizkaia kalean, gutxi eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa), Garajeak Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

HILBERRIAK
URTEURRENEN
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ESKERTZA ▶

Joxe Arin Dorronsoro jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Ataun, 2007ko maiatzaren 19a

hilberria ▶

Oihana Alkorta Agirre

Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da

Nagoreren ama eta amona

ZARAUTZ, 2007ko maiatzaren 19a

TOLOSA ▶ HIRIGINTZA



Koskadun zebra-bidea, San Frantziskon

Erredakzioa ▶ San Frantzisko ibiltokian zebra-bide koskaduna ipini dute. Honekin, bertatik igarotzen diren autoek abiadura moteltzea dute helburu. Kondeko Aldapan duela hilabete egin zuten bezala hemen ere jartzea erabaki dute. Dena den, urtean zehar egiten diren ekitaldiak direla eta, koska hau kendu daitezke. **I. GARCIA**

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA



Jolasekin Marokotik hurbilago

N. Urbizu ▶ Alegiko San Juan eskolan 5 egunez Maroko ezagutzeko jardunaldi bereziak egin dituzte. Honen arrazoa, Marokoko bi ikasle daudelako da: Manal (5 urte) eta Marrwane (5. maila). Jolas-ordueta maila guztiakoei Marokoko jolasak ikasi dituzte. Kasu honetan 6. mailakoak aritu ziren, latak pilotarekin bota nahian. **N. URBIZU**

TOLOSA ▶ KULTURA

Jende ugari, Gorritiri egindako omenaldian

Tafallan ospatu zen elizkizunean, bertako musikariekin batera, Santa Maria kaperakoak aritu ziren kantuan



Tafallako elizkizunean parte hartu zuten musikariak. **HITZA**

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean, Felipe Gorriti «maisua» omendu zuten Tafallan ospatutako elizkizunean. Meza handia Do menorean ospatu zuten Santa maria elizan. Ekitaldian Uhart

Arakilgo musikagilaren zenbait kantu interpretatu zituzten.

Bertan izan ziren, Coral Tafallesa, Tafallako Tubala Uxo eta Tolosako Santa Maria Kaperara bere orkestrako musikariak. Hauek Pepe Arzelus orga-

noan zutela, eta Ander Letamendiaren zuzendaritzapean guztiak batera abestu zuten. *Agur Jesusen Ama* zortziko ospetsuarekin eman zioten hasiera ekitaldiari. Elizkizunean parte hartu zutenek gogotsu txalotu zituzten Euskal herriko musikari guzti hauen interpretazioak.

120 ahots nahasiek elizaren barruan zeuden gainontzekoekin batera, besteak beste, *Agur Jesusen Ama*, *Magnificat* eta *Te Deuma* kantatu zituzten.

Antolatzaileek aipamen berezia eskaini nahi izan zien Tolosako TEEari, Tolosa eta Tafallako Udalei eta baita Tafallako abeslariarentzako Eceiza eta Gorrotxategi etxeek egindako ekarpen «gozoei» ere.

TOLOSA ▶

Dantza emanaldi berezia izango da gaur Beotibarren

Udaberriren 50. urteurreneko ospakizunen baitan, Andramari eusko dantzari taldea eta Maule eta Arrokiaga-koak izango dira gaur, 20:00etan, Beotibar pilotalekuan.

VILLABONA ▶

Gipuzkoako eskola artekoen finalak

Areto Futboleko Federazioak antolatutako eskola arteko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur goizean Olaederra kiroldegian. Hiru partida ikusi ahal izango dira, kadete mailako neska eta mutilen artekoak, eta alebin mailako mutilena.

TOLOSA ▶

Laskoraingo ikasle ohien afaria, gaur

Laskorainen 40. urteurrenaren ospakizun ekitaldien baitan, 300 ikasle ohi bilduko dira gaur 21:00etan egingo duten afarian.

TOLOSA ▶

Galtzaundiren ludotekarako begiraleak

Galtzaundi Euskara Taldeak ludoteka antolatu du uztailearen 2tik 31ra. Hori dela eta, begirale lanetan aritzeko gazteak behar dituzte. Informazio gehiago nahi dueanak 943 65 50 04ra deitu dezake.

LEITZA ▶

Barriola Eugiren aurka ariko da gaur, Astelenan

Patxi Eugiren aurka lehiatuko da gaur arratsaldean Abel Barriola. Buruz buruko txapelketako partida hau Astelena pilotalekuan izango da.

hilberria ▶

Oihana Alkorta Agirre
gaztea



Urrunean argi gorridun itsasontziak agur esaten dit eta hemen nago ni kaixo esaten zerura begira airean idazten

Agirre eta Alkorta lehengusuak

ORIO-MUNDAKA, 2007ko maiatzaren 19a

hilberria ▶

Oihana Alkorta Agirre



HERENEGUN hil zen, 29 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere ama: Rosa Mari Agirre (Jesus Mari Alkortaren alarguna); anaia: Andoni; osaba-izebak: Jose Inazio eta M^a Karmen, Maribel eta Juan Jose (+), Faustina eta Joxe Migel, Lupe eta Jon, Rafaela. Lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 18:30ean, Getariako Salbatore Donearen parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Zinkunegi kalea 7-A, 4. esk.

Oharra ▶ Gorpua Zarauzko Beilatokian egongo da. Maiatzak 27an, meza izango da Orioko San Nikolas parroki elizan, 12:00etan.

ZARAUTZ, 2007ko maiatzaren 19a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Kultur Astea amaitzeko, Donapaleu eta herriko pilota eskolaren arteko xare partidua Irurako Trinketean goizean zehar.

Tolosa. Arianna Puelloren kontzertua Bonberenean 22:30ean izango da. Egungo hip-hop abeslari onenen artean da gironatarra.

Tolosa. Txobrongilo taldeak *Erreka Mari* saioa eskainiko du Leidor aretoan 17:00etan.

Tolosa. Udaberri dantzari taldearen 50. urtemugako ekitaldien barruan, Zuberoako maskaradako eta Galdakaoko Andra Mari dantzari taldearen ikuskizuna Beotibar pilotalekuan 22:30ean.

Tolosa. Poxpolo ta Mokolo pailazok eta Tolosako Musika Bandak kontzertu-emanaldia eskainiko dute maiatzaren 27an, Leidorren 12:00etan, Musikaria astearren barruan. Sarrerak, www.kutxa.net eta Leidorren. **Tolosa.** Laskorain ikastolako ikasle ohien afaria izango da 21:00etan. Gaur ere eskura daitezke txartelak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Etorkinen egoeraz hitz eginez

TOLOSA ▶ Ereitek antolatu dituen 'Kulturartean' jardunaldien baitan, Mundujaia izango da gaur, Plaza Berrian, kultura desberdinak ezagutzeko ekitaldiekin

IÑIGO TERRADILLOS

Ereite elkarteak antolatu duen *Kulturartean* jardunaldien baitan, herenegun Jose Luis Tiradoren *La liga de los olvidados* dokumentala izan zen ikusgai Kultur Etxean. Bertan, hainbat etorkinen bizi-penak ezagutzeko aukera izan zen.

Dokumentalaren ostean, egun tolosarrak diren jatorri ezberdineko etorkinen artean, mahai ingurua egin zuten Kultur Etxean bertan. Isabel Rekalde moderatzaile zela, Hector Luna ekuadortarrak, Rita Calderon peruarrak, Nakh Bouda sahararrak eta Mayi Castillo venezuelarrak hartu zuten parte. Esan zuten artean, etorkinen irudia egun den bezalakoa bada komunikabideek horretan zerikusi handia



Mahai inguruan parte hartu zutenak, herenegun, Kultur Etxean. I. TERRADILLOS

dutela izan zen. Horretaz gain, euskaldunak ere duela urte batzuk atzerrira joan zirela lan bila eta ulertu beharko luketela egungo immigrazioa bezalako ideiak ere entzun ahal izan ziren. Bestalde, norbaiti beraiek egindakoa egitea gomendatu-ko al lieketen galdetuta, «ez

nioke inorri gomendatuko bere lurra utzi eta beste leku batera lan bila joatea, izan ere, oso gorrak izaten da», azaldu zuen partaide batek. Halaber, etorkinen artean ere desberdintasunak egiten direla ere adierazi zuten, «ez baitzaio tratu berdi-

na ematen amerikar bati edo afrikar bati».

Gaur egitarauko ekitaldi nagusia izango da, Mundujaia, hain zuzen. Egun osoan zehar, Plaza Berrian, kultura desberdinak elementuak ezagutzeko aukera izango da.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Alaitz. Gaur 4 urte. Zorionak eta ondo pasa ebeko guztien partetik.



URTE ASKOAN

Nora Larrañaga Iraola (Aldaba). Gaur 8 urte. Muxu handi bat familiaren partetik.



SANTOS ETA MARGARI

50 urte bidea elkarrekin egitea erabaki zutenela. Ireki dituzten bide berrien partetik zorionak. Askok da bide horretan utzi duzuen.

Villabona
 optika

Zatoz Villabonako optika berrira!

Ireki berria dela eta %10eko deskontua produktu guztietan maiatzean zehar

Kale Berria 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40

ceinpro

Disenuar eta kreadioa halmenean oinarritutako negozioa

• DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA
 ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
 IRALPENA - 2. hasierako / 2000 ordu
 SARRERA - LH1 - EE I - edo HSGCL BAZKILERGIA gaituzten

• ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA
 ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
 IRALPENA - 2. hasierako / 2000 ordu
 SARRERA - 2. BEB - LH1 - EE I - edo CBH gaituzten

Logo of CEINPRO and other partners.